

herri jaiak Udaroan herri jaiak dira, bai, non-nahi, Euskal Herri guztian zehar. Herri jaiok ez dira, ez, toki guztietan berdinak, ezta gutiagorik ere. Eta, ez dirateke ere, beti, behar luketen bezain "herri" jaiak.

Erabateko herri giro horretan, goragarri ditugu —beste zenbaiten artean, apika— Itziar eta Mallabiako jaiak, duela bi hilabete Elgetakoak goratzen genituen bezalaxe.

Mallabiarrei bagazokie, aurreko alean ikusi ahal izan genuen gazte talde batek burutu duen programa joria: Umeen eguna, pintura, dantza, bertsolari gazte eta idaz lehiaketak; antzerki, bertso, kanta eta trikilitari saioak... etab. etab.

Mallabiarrok gogorak dira gero, gogorrik bada. Lehen-danik ere ezagutzen genituen eta, horregatiko, ez dira oraingoan ere atzean geratu. Joixok eta bultz

berriak Esan bezala, Mallabian Andra Mari jaiak ospatzen ari dira. Hona azken bi egunetako programa:

Hilaren 17an, eguerdiko 12etan, herritarren arteko "tortilla" eta "paell" txapelketa. Ondoren, eliz-ondoko enparantzan, anai-arteoko bazkaria. Gaueko 10etan, berriz, III Euskal Gauda, Benito Lertxundi, Gorka Knorr, Lurdes Iriñdo eta Luzaideko Bolantak tartean direla.

Biharamunean, hilaren 18an, 11etan Herri Meza. Ondoren, Aurrekuua herriko dantzari nagusiak. Eguerdia aurretik, Sakabi-Egañazpi eta Zendoia-Iturbide trikilitariak, bai eta Lazkao-Txiki, Lasarte, Gorrotxategi, Lizaso eta Enbeitza bertsolariak.

Arratsaldean, goizeko trikilitari eta bertsolari saio berbera, eta, azken batez, erromeria.

● Dagoeneko erabaki denez, Euskaltzaindiak Urdaubini eratu du bere iraileko biltzarra, hilaren 14ean eratu ere, hain zuzen.

Honako biltzar hau Axular euskal idazlerik nagusienaren ohore eta omenetan izanen da, eta programa hurrengo alean adieraziko ahal izanen dugu.

● Irailean ere, Urolaldeko II Saiakerak eratu ote diren susmoa dago aspaldidanik. Lerro hauk idazten ari garelarik erabakitze dago oraindik zer egunetan eratu ote diren, bai eta aztertuko den gai nagusia ere.

● Azpeitian ezezik, Azkoitian ere lanean ari zaizkigu. Urrian Euskal Aste "handi" bat (zortzi-hamar egu-

kinarazi berri du. Madrilgo Gobernuari egin zaion horrrako eskari hori hiru puntutan berez dezakegu:

—Gaur egun Arabak duen bezalaxe, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziak betidanik izan duten kontzertu-sistema berriro aztertua eta kontutan hartua izan dadila, "regimen local" delako lege berrian.

—Estaduari eskoletan euskara aukeran irakatsia ahal izan dadila, Hazkuntza eta Zientzia Ministeritzari eskatu.

—Marcelino Orejak eskualdeei buruz arestian eginak dituen eskariak erabat onartu.

udako berokeriak Lexonako kanta taldeak, Bilboko Euskal Hit Parade delakoak eman ohi duen Udako Abesti irabazi du, "Euskal Herri polita gora" delako kanta edo abesti batez.

Sarritua izan den kanta hori diskotan grabatua izan den arren, zenbait jaialditan debekua jaso izan du jendearen aurrean kantatu ahal izateko.

● Aita Donostia izan zen kaputxino musikari ospetsuaren chorez, irudi bat eraiki berri da haren sorterrian, Donostian alegia.

Hor nonbait goian dagoen Aita Donostia agurgarriari, zorionak. Zorionak, ez, noski, irudi kazkar horregatik, noizbait horrelakorik irabazteko zer karrera behar zuen egin denboraz jakin zuelako baizik.

Zeren... baldin euskal musikari ordez euskal idazle izan balitz... ez irudirik eta ez kristorik!

● Ha zelako utzaila izan dugun! Eguzkia gogotik izkutatu zaigu. Ez dakigu berezko arrazoiaren bategatik, ala hori ere Madrilen neurtzen ote duten.

Hego zein Ipar Euskal Herrian antzerako, noski, oraindik ez bait dute klimarik aldatuko duen sasi mugarik asmatu (ari dira, hala ere).

Hala ere, bai, Ipar aldeko anaiak gu baino askoz ere dotoreago daude, oraintsuan "à vocation touristique" tituluz izendatua izan den eskualdea bait da.

Noski, ondo baino hobeto deritzagu "bokazio" delako ipuin horri. Baina... nork bilatzen die ipar aldeko anaiak eguzkia segurtatuko dien sandurik?

● Frantses-legeak "pirula" onartu berri du, hau da: "Haurrik ez ukaiteko pirula libroan salduko dela farma-



Txurruka, Mallabiako eratzaille purrukatu bat

ta izaten, ez lehiaketa, ez eta agerraldia ere.

Pintatzaileok Mutrikun zehar bildu ohi dira Santxo egunez, eta goiz erdi batez nork bere lana bukatu behar izaten du, nola-hala eta kalezkale.

Ehun eta hogeiren bat pintatzaile bildu da aurten "Goi-zeko Izarra" elkartearen ardurapean. Han-hemenka lan egin ondoren, berriz, bazkaria elkarrekin. Tartean berri-keta ugari, iritzi-miritziak, eta pintura iharduna nagusi.

Egun horretan eginiko lanekin erakusketa bat muntatu da, eta Mutrikuko Udaletxeak sei aukeratu ditu, bakoitzeko 6.000.— pta. ordainduz.

● Iruñeko Udaletxe Dantza Taldeak Middeesbrough-Teesside deitu herrian eratu berri den nazioarteko folklore jaialdia irabazi du.

● Bizkaiko Berangon "Itxaropena" izeneko kanta talde bat sortu berri da.

Talde berri hau 8-13 urte arteko zazpi neska-mutilek osatua da. Gazterik hasiak dira, gero!

diotenez... Gipuzkoako herri batetako erdal berri-emaileari irakurri ahal izan diogunez, zenbait egunen buruan auto bat geldirik omen dago kale bazterrean.

Gure "pro-hombreak" geldine luze hori salatu du "herri-zentzu" zintzo batek eginez. Horren berritua izan eta ez da nonbait enteratu, auto horren ugazabak ipar aldera hanka egin behar izan duenik. Ez, antza, oporrez, autoa eramango bait zuen.

● Urretxuako erdal berri-emaileak serio eta harro asko esan digunez, berriz, sasoi batetako "Agiñeta" haizkolar ospetsua eta Urbiako Aita Lasa "urretxuanoak" omen dira.

Halako bitxikeriarik egunkari "donostiano" batetam irakurtzea ez da, gaurkoz, batere harrigarri. Baldin jokera honek jarraitzen badu, zorioneko "a" organikak zeregintza guti emanen digu aurrerantzean euskaldunoi.

Orduantxe bakea orduan. Bakea zurekin eta... inoren izpirituarekin.

● Beti ikasten da zerbait, bai, eta oraintsuan Abris-keta delako bilbotar batek esan duenez, zenbait jaiak —korridak, alegia— Euskal Herrian sortuak omen dira. Gehiago ere esan du, pelota-jokoa ez dela, aldiz, euskal-jokoa, euskaldunok gureganatua baizik.

Abrisketa jaunak ez du, noski, pelota jokoaz euskaraz idatzi denik irakurri, ez eta irakurriko ere. Abrisketa jauna bilbotarra da, eta horrekin egin du, uste du, bere karrera.

● Bai, zezen-jokoa Euskal Herrian sortua omen, eta pelotarena, ordea, auskalo non! Iritzi nahasirik ez zaigu azken bolada honetan falta.

Nahasi beharrenez beharrez, Euskal Herria eta Castillaren arteko harreman eta lotura hestuek errepikatzen aspertzen ez den historigile batek gipuzkoar eta bizkaitarren arteko desberdintasuna gogorarazi dizkigu arestian.

Desberdinak omen gara hainbat ohituraz, desberdinak nortasunez eta politik jokera. Bai eta hizkuntzaz ere, barduliar eta karistioak euskaldunoi aurretik, behintzat.

Hizkuntzalariek frogatu ez dutena nahi luke histori-gileak sinestaz. Eta Gaztelerrin mugarik ikusten ez dugunak nahi luke Sallabentzen ikusi.

● Gure Jurgi Oteiza irudigileak, Debako Arte Eskola pikutara joana dela esan berri du Donostiako egunkari batetan egin zaion elkarrizketa batez.

Jakina, baldin ezer pikutara joan bada Arte Eskola "oteizianoa" izan daiteke... inoiz "oteizianoa" izan bada, noski.

Iritzia iritzi, begi-bistan da jakintsuek ere noizik behin puzkarrak botatzen badakitela.

● Eta, Oteiza aipatu dugunez, beste bizardun batek, Santiago Aizarnak alegia, B. Gandiagaren azken bertso sortan ("Hiru Gizon Bakarka" - Gero) "agertzen diran alperrikako erderatasun batuek" salatu ditu.

Harrigarri da bere burua idazletzat duen batek poeta bati artifizialkeriarik eskatzea, eta are gehiago euskaraz traketsago traketsago den Aizarna batek.

Aizarnari, barkatu, ulertu ezik, asmatu egin behar izaten zaio.

● Erabateko sermolari batek, Bilboko euskal astekari batetan haserre eta istiluzko artikulua gehiegi agertzen ez ote den pentsatzen duen zenbait irakurlearen susmoa agertarazi du.

Hauzia ez da, gure ustez, euskaldunon arteko haserre eta istilu giroko artikulua gehiegi agertzen den ala ez, horrelakorik debekatzen bazaie... zer arraio egin behar ote duten hiru xemeiko idazle kazkar hoiek baizik.

AMATINO

ZENBAT GARA

netakoa, nonbait) eratu omen da. Ea ba, denborak esan beza.

erabaki garrantzitsuak CAMBIO 16 aldizkariaren 140. alean irakurtzen ahal dugu Basauriko gartzelan hogeitun egun luze iraun duen gose-grebaren berri. Jose Maria Zabarte, funtzionario batekin izan zuen eztabaida baten ondoren, berrogei egunetarako zigor-gelan sartarazi zuten, eta, ETA-V delakoaren hamairu lagunek gose-grebari ekin zion zenbait eskari eginez.

Ondorioz, hamairutatik hamabi gaixotegira eramanak izan ziren, eta, azken batez, Añoveros Apezpikuaren bisita eta hainbat senideren erreguz, gartzelako zuzendari-tzak zenbait erabaki hartu du, ETA-koek harako gose huelgari amaiera emanez. Hona erabakirik nagusienak:

—Zabarteri leporatu zioten zigorra kendu (Espainiako gartzela batetan orain arte sekula santan egin ez den gauza).

—Bizkaiko aldizkariak gehitu eta Madrilgoak irakurtzeko ere aukera eman.

—Egunez, gelatik irtetzeko baimena eman, nork bere zereginak, ikasketak eta irakasaldiak egin ahal ditzan.

—Liburutegi berezi eta argi aproposak jarri.

—Idaz-makinak eta musika tresnak gartzela barruan edukitzeko baimena eman.

—Horrez gainera, telebista ikusi ahal izan den dute arratsaldero, takorria gartzelatik kanpo erosi ahal, janariak berotu etab.

—Bestalde, asteko bi karta idatzi ahal izan den dute, eta egungo bisita lekua handituko omen da, sarriago izan daitezten.

—Azken batez, gaixo kutsaterrazak eta homosexualak beste departamendu batetara eramanak izan dira.

● Erabaki hauei bagazokie, eta harreman guztietan gertatu ohi den bezalaxe, susmoa dugu ez direla eskari guztiak ontzat eman, eta, alderantziz, eskatu gabekoak ere emanak izan direla.

Dena den, ezin uka lortu dituzten erabakien garrantzia, lortu dutenak baino zer ez zutenak zer pentsa gehiago ematen badigu ere.

donostiako udaletxea Donostiako Udaletxeak ere, inolazko gonbaraketarik gabe noski, erabateko eskaria egin eta ja-

zietan, eta asurantz pagatuko dutela midikuaren papera den ber" (HERRIA astekaria).

Nik uste, horrelako erabakirik hartzekotan, hartu ere denboraz hartu dutela, gauza hoik erabilgarriagoak bait dira udan neguan baino. Ez diezadala gero inork tomarik bota, era batetako zein bestetako pirula gizona bera bezain zaharra dela uste bait dut. Arazoa norberagan dago.


Etxe-atariak hutsik daude "seisicentosa" asmatu zenetik, eta "week-end" delakoak neska-laguntza ahaztu arazi du. Funtsean berdin, ezer guti aldatu da.

Pirulaz zein puxigaz, ala karramarroarenak eginez, hauzia lehen, orain eta gero norberagan dago, eta egongo da.

aipamentxoak Abuztuaren 11an Eskuararen Eguna ospatu da Ipar Euskal Herrian, "gure mintzairaren ospatzeko, goresteko eta haren alde familien sustatzeko".

Egun berean, Zuberoko Barkoxen, Etxahunen Trajeria deitu pasturala aurkeztu zen bigarren aldikoz.

● Eratua izan da aurten ere Mutrikun, Euskal Herriko Pintura Saioa. Eta, saioa diogun, ez bait da sarrike-



Paulino Larrañaga Mutrikun ari